

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan, hainbat elementu dira beharrezkoak. Lehenik eta behin, helburu argiak eta ikuspegi estrategikoa edukitzea funtsezkoa da. Proiektuaren xedea eta helburuak ondo definituta egon behar dira, horrez gain, helburu horiek zehatzak eta neurgarriak izan behar dute arrakasta ebaluatzeko.

Jarraitzeko, talde konprometitua eta gaitua behar da, talde hori gu izango ginateke, hau da, markaren sortzaileak. Taldeak rola argi banatuta izan behar ditu, eta kide bakoitzak bere arduetan esperientzia eta gaitasunak izan behar ditu. Horrez gain, komunikazio ona eta motibazioa mantentzea oso garrantzitsua da proiektua ondo aurrera eramateko.

Halaber, baliabide nahikoak izatea ezinbestekoa da. Horien artean, giza baliabideak, hau da, talde egokia eta nahikoa izatea, eta baliabide ekonomikoak nabarmentzen dira. Aurrekontu errealista eta finantzaketa egokia izatea beharrezkoa da. Gainera, materialak eta teknologia ere behar dira, tresna eta azpiegitura egokiak barne.

Azkenik, denbora kudeaketa eraginkorra eta kontrol mekanismo egokiak ezinbestekoak dira proiektuaren aurrerapena eta emaitzak ziurtatzeko. Faktore hauek guztiak modu koordinatuan landuz, proiektuak arrakasta izateko aukera handitu egiten da.